



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

UDALEKU IREKIAK 2007

BEGIRALEEK IZENA EMATEKO DEIALDIA

Aurreko urteetan bezala, aurtengo udarako Udalak udaleku irekiak antolatu ditu uztailan zehar Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat.

Honen bitartez **begirale** bezala lan egin nahi duten gazteei izena ematera Udaletxeko Informazio Bulegora jo beharko dutela jakinerazten zaie.

Begiraleak eta koordinatzaileak hautatzeko kontutan hartuko diren **irizpideak**, Gazteria eta Kirol Batzordeak proposatu duen baremazioaren arabera, honakoak dira: aisialdiko tituluaren jabe izan, euskara maila, jarduera honekin lotuta ikasketak eta esperientzia edukitzea eta gai hauetan espezializazio-ikastaroak eginak izatea.

Kasu guztietan euskara ongi jakitea ezinbestekoa izango da. Eskatzaileek adierazten dituzten **merezimendu guztiak fotokopien bidez frogatu beharko dituzte**, eta fotokopien bidez frogatzen ez direnak ez dira meritu gisa kontuan hartuko.

OHARRAK:

1. Begiraleen lan ordutegia 9.00etatik 14.30ak arte izango da uztailak 2tik 31a arte.
2. Izena emateko epea: **apirilaren 23tik maiatzaren 4ra bitartean**, Udaletxeko Informazio Bulegoan.
3. Epez kanpo sartutako lan-eskaerarik ez da onartuko.
4. Merzimendu guztiak eskaerarekin batera aurkeztu eta frogatu behar dira (*fotokopia konpultsatuak*). Bestela ez dira kontuan hartuko.

Oiartzun, 2007ko apirilaren 17a
GAZTERIA TEKNIKARIA